

Armiarma-sarea

Karmele Mitxelena Etxebeste

Julene Azpeitia
38. ipuin lehiaketa
2025 Zumaia



Zumaia
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Armiarma-sarea

Karmele Mitxelena Etxebeste

Julene Azpeitia 38. ipuin lehiaketa

2025

Lehen saria

2025eko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Karmele Mitxelena Etxebeste (ipuinaarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Ez da kasualitatea izan. Juxtu paretik pasa naizenean zabaldu du etxeko atea bizilagunak. Ni ezkaratzera noiz helduko zain egongo zen atearen bestaldean, behatxulotik begiratu beharrik gabe. Begoñak ez du behatxuloaren beharrik, ohituta dauzka belarriak hormen bestaldean gertatzen dena ikustera.

—Sargori dago gaur eguna.

Bizilagunekin beti hitz egin behar izaten da eguraldiaz, baina Begoñarekin ez. Begoñak eguna sargori dagoela esaten badu, lepo altuko kamiseta honekin joateko bero egiten duela esan nahi du; hori, eta badakiela zergatik ditudan armairuan horrelako hainbeste kamiseta. Nik ere badakit badakiela. Eta horrelakoetan, erantzuten ez diodanetan, badaki bakean uzteko esan nahi diodala.

—Zerbait behar duzu? —jarraitu du atetik eskuak gurutzatuta.

Isilunea berriz. Isilunea ez luzatzeko erantzun posibleren baten bila hasi naiz, alferrik. Batzuetan kontua ez da isilunea zenbaterainokoa den, zein momentutan azaltzen den baizik.

—Ez, Begoña —isilunea berriz—, lasai egon.

Sarraila zabaldu eta atea itxi aurretik, begi-niniek ihes egin didate une batez, eta Begoñarekin egin dute topo. Okrezko bi begi-nini handi, bi begi-nini luzatu, lepoa ia kokotseraino estaltzen didan kamisetaren poliesterra zeharkatu nahian. Begiekin hitz egiten dugu, baita elkarri begiratzen ez diogunean ere, ukatutako begiradek ere asko esaten baitute. Horregatik irteten da ezkaratzera, ikusten nauela ikus dezadan. Eta bere presentziak deseroso sentiarazten banau ere, egiazki lasaitu egiten nau Begoña begira dudala jakiteak, hormen bestaldetik ere begira, belarriekin begira.

Ni ere begirada hutsarekin saiatu naiz esaten ez nagoela hain gaizki. Lasai egoteko, jartzeko lasai garbigailua zentrifugatzen, edo pizteko lasai irratia, Galder Zaragozan dagoela lanean eta ez dela bihar iluntzera arte etorriko. Eta agian bihar baietz, bihar badaezpada adi egoteko, jaisteko telebistaren bolumena pixka bat, eta ahal dela afalorduan ke-erazgailu zaratatsua ez pizteko. Baina hori bihar esango diodala, gaur uzteko bakean. Eta barkatuko didala, baina ez dudala bere aurrean negarrez hasi nahi, eta atea itxiko dudala. Eskuarekin keinu egin diot isilik. Ez dakit esandako guztia ulertuko zuen.

Bizkarra atearen kontra jarrita egin dut negar. Bi eskuekin aurpegia estaltzen ahalegindu naiz, negarrari eusten saiatzeak intziriak handitu baino ez dituela egiten ahaztuta.

Lurrera iritsi arte igurtzi dut atea goitik behera bizkarrarekin. Begoña etxeko atea ixten entzun dut. Hark ere atearen bestaldetik jarraituko du begira, nire negar-intzirien zain. Ni negarrez sumatzeak lasaitu egiten duela pentsatzen dut, bizirik jarraitzen duenak soilik egin dezakeelako negar.

Belaunen gainean pausatu dut kopeta eskuak aurpegitik apartatu gabe. Negarrari emana egon naiz tarte batez, nire barrutik ateratako intziri bakoitzak arnasaldi berri batentzat lekua utzi behar balu bezala. Agian ez dut bizirik nagoelako egiten negar, agian negar egiten dudalako jarraitzen dut bizirik.

Aspaldian ez digu Begoñak txirrinik jo. Inoiz ez digu gatzik eskatu, ez irinik, ez limoirik, ez ardo zuririk txirlentzat. Egia esan, inoiz ez digu ezer eskatu. Eman bai. Kroketa bildu berriekin azaldu izan da noizbait, tarta handiegiren baten erdiarekin, Arantzazun bedeinkatutako erroskillekin, edo almendrazko turroiarekin Eguberri bezperaren batean. Aspaldian, ordea, bakean uzten gaitu, txirrinarekin piztiatzarra esnatuko duen beldurrez edo. Juan Mari azken hatsa ematen ari zela ere ez zuen gure aterik jo, etxe azpiko anbulantziaren argiek ohartarazi ziguten zerbait gertatu zela.

Urduri hurbildu zen Galder leihora. Argien urdina poliziarena zela pentsatuko zuen agian. Eskuarekin zakar mugitu zituen gortinako xaflak, eta gaizki aparkatutako anbulantzia hura ikusitakoan, arnasa nola hartzen zuen ikusi ahal izan nuen.

Hor amaitu zen gure eztabaida. Gutxitan bezala orduko hartan nirea izan zen azkeneko hitza. Galderrek garagardo batekin baretu zuen barruko sua, futbol partiden laburpenei begira. Nik leihoak zabaldu nituen egongelan harrapatutako hira guztiari ihes egiten uzteko, eta ileak eta arropak orraztu ondoren, ezkaratzera irten nintzen.

Juan Mariren heriotzaren hurrengo egunetan, Begoñari neuk igotzen nizkion dendatik klinexak, porruak, laranjak eta Danacolak. Behin, etxeko atarian geundela azaldu zen Galder eskaileretan gora, eta doluminak ematera behartuta sentitu zenean, Begoñak atzera egin zuen bi musuak ukatuz. Keinu hark ez zuen Juan Mariren heriotzarekin zerikusirik. Ordutik ez dute askotan topo egiten, esan dut Begoñak behatxuloak dauzkala belarrietan.

Gizon tradizionala zen Juan Mari, buruan txapela eta ezkerreko poltsikoan Begoñak lisatutako oihalezko mukizapia; bazkalostean karta-jokora eta igandetan elizara. Besteen etxeetan muturrik ez sartzeko esaten zion andreari. Ez nion sekula horrelakorik esaten entzun, baina Begoñak biak bakarrik geundenetan soilik galdetzen zidan zer moduz nengoen, eta ahapeka beti, Juan Marik cowboyen pelikula laugarrengotik entzuteko moduan jarrita izaten zuenean. Isilka beti, gure ahotsek nahi baino oihartzun handiagoa egiten zutelako ezkaratzean, eta gizona ezkerreko belarritik soilik zen gorra.

Txirrina jo beharrik gabe zabalduko lidake Begoñak haren etxeko atea. Ez nuke ezer esan beharrik edukiko, eta hark ere, begirada hutsarekin gonbidatuko ninduke barrura, aterpera, erromero usaineko etxe horretara. Sukalderaino gurutzatuko nuke korridorea, astiro, irrist egin gabe kontuz, Begoñaren etxeko zorua beti baitago garbitu berri, eta kamamila bero bana hartuko genuke isiltasunean sukaldeko hule loredunari begira.

Komunera sartu aurretik, korridoretik usaindu dut nire perfumea. Nork berea ez usaintzea da normalena, baina atera hurbildu ahala, gero eta sarkorrago sumatu dut sudur-zulotan gora. Goragalea eman dit nire usainak. Galderri ere gertatzen zaio batzuetan nire presentziak nazka, atzerakoa —ez dakit nola definitu— ematea, apur bat edaten duenean batez ere; pentsatzen dut hauxe izango dela sentitzen duena.

Besoak astiro goratu ditut kamisetari tira egiteko. Espero nuen ezker saihetsetako sastada, eta, hala ere, ustekabeen ihes egin dit minak bokal forman. Arnasa luze bota dut, airearekin batera min gorria, min zorrotza, min min hori kanporatu nahian.

Ileak desordenatu zaizkit lepo altuko kamiseta eranztean. Ni deforme eta kolpatu bat azaldu zait parez pare, egiazko ni bat. Ispiluak ez du gezurrik esaten. Nik bai, asko.

Beroak nire gorputzetik ihes nola egiten duen sumatu dut, ordura arte bahituta egon izan balitz bezala. Oilo-ipurdia marraztu zait besoetan lehenik, eta sorbaldetan gero, eta mina eman dit; mina eman dit larruazaleko orban moreenetan batez ere. Besteetan, kolorea galtzen ari diren horietan, ez hainbeste.

Egun batzuk nahikoak izaten dira nire barruak ubeldura moreak xurga ditzan. Desagertzen desagertzen hasten dira, mina lehenengo, eta kolorea gero, gardenak eta sumagaitzak bihurtzen diren arte. Ez dakit xurgatutakoan gorputzak non gordetzen dituen.

Kolore guztiak zapaldu ditut banan-banan neure hatzekin, minak pizteko botoien gisara edo. Mina zapaltzea bada minaren sakonera neurtzeko modu bat, mina noraino heltzen den sentitzeko modu bat, non amaitzen den —amaitzen bada—. Eta halakoetan, mila puntako iceberga baino ez naiz ni, sakatutako min bakoitzak zulo oso ilun batera naramana.

Icebergaren punta horietako batek eztarria zulatu nahi dit; eztarria ere. Listua irensten dut, ura edaten dut, eta listua irentsi eta ura edaten dut berriro, baina punta zorrotz hori beti hor, begiak hezetzen zaizkidan aldiro zorrotzago.

Saihetsetatik besoetara, eta besoetatik sorbaldetara pasatu naiz. Lepoa luzatu dut Galderren hatz-markak hobeto ikusteko, eta astiro laztandu ditut goitik behera, minik sakatu gabe oraingoan. Badoazela dirudi, laster zeharkatuko dutela larruazala eta barrura sartuko, hezurretara, odolera, biriketara, ez dakit nora, baina betirako geratuko dira hor. Eta ezingo da bisturiarekin gorputza zulatu eta mina kendu. Ez, inork ez ditu ikusiko, eta nik bakarrik sentituko ditut.

Armiarma baten arrastoak dirudite orban txikiek, armiarma txiki baten oinatzak. Baina Galderren eskuak ez dira txikiak; handiak dira, indartsuak laztan egiten didatenean, eta altzairuzkoak estutzen estutzen estutzen hasten direnean. Arrastoen gainean ipini ditut nire eskuak, Galderrenak kalkatu nahian, eta nireak ere estutzen estutzen estutzen hasi dira. Ni ez naiz hain indartsua, ordea; nik ezin dut neure burua ito.

Eskura huraxe zuelako lehertu zuen *Burberry* arrosa ispiluaren kontra. Nahita ere ezingo zukeen nire heriotzaren metafora hoberik antzeztu. Ia horma zeharkatzerainoko indarrez jaurti zuen nire esentzia likidoa. Begoñari tinpanoetan min emango ziola pentsatzen dut, eta bihotzean. Istantean desintegratu zen, nintzen, eta orain ispiluan marraztuta geratu da nire lehenengo heriotza, *Burberry* usaineko heriotza. Zazpi urteko zorte txarra omen dakarte ispilu hautsiek. Ez dakit, nik aspaldi galdu nuen nire zorte txarraren kontua.

Armiarma-sarea dirudi ispiluko zauriak. Hatzarekin laztantzera ausartu naiz, astiro, beldurrez, piztia zaurituren batena balitz bezala, arriskutsua zenbateraino den neurtu nahian edo. Eta oharkabea ta-ta-ta-ta gorrian hasi zait hatz-mamia, odola ikusi bai, baina sentitu gabe.

Minera ohitzen ari naiz agian. Iluntasunera ohitutakoan ilunetan ikusten hasten denaren gisan, ez diot eskumuturra gehiegi estutzen didan gomari erreparatzen, eta hatz-bizarrak odoletan utzi arte hozkatzen ditut. Denborarekin min guztiekiko sorgor egingo ote naizen pentsatzen dut.

Ur txorrota zabaldu eta hatza garbitu dut. Dutxa bat hartu beharko nuke, baina urak ukitu egiten nau, laztandu, estali, eta ez zait gustatzen. Gero eta deserosoagoa egiten zait tabernariak kafesnearen bueltak eskura ematea, edo goizetako autobus beteegiko bidaiarien gertutasuna, edo haizea bera belarri atzeetan zelatan.

Beste behin zenbatu ditut gorputzeko orbanak, ispilutik oraingoan, beste batenak balira bezala. Xaboa eta urarekin igurtzita ere ez lirateke sekula desagertuko. Lastima baino ez du ematen gorputz tarratatu honek, kolpatu honek, abandonatu honek. Eta neure-neurea dirudi ispiluko zartatuko zauriak ere, nire gorputzeko zaurien artean kamuflatuta. Armiarma-sarea dirudi nire

saihetsetatik jaiotzen, arnasa sakon hartzen dudan bakoitzean airea bahitzen didan sarea, arnasa mozten didana.

Azazkal-moztekoaren atzeko aldearekin egin dut indar ubelduen gainean, nire hatzek baino indar gehiago egingo duelakoan. Ez da atsegina, baina mina jasaten ahalegindu naiz, ezin gehiagora arte estutzen. Bihar, Galder itzultzen denerako, ez nuke gorputz sendatu bat nahi. Biharamunetan konturatzen da nolako munstroa den, barruko haserrea apalduta nire gorputz kolpatuari begiratzeko dionean. Inoiz baino gehiago zaintzen nau halakoetan, damututa, hala dagoela aitortzen ez didan arren. Gorputzeko marka guztiak desagertzen zaizkidan arte; orduan zer egiteko gai den ahazten hasten zaio. Horregatik saiatzen naiz nire ubeldurak ahalik eta gehien luzatzen, berrientzat lekurik ez uzteko.

Tirita batekin estali dut hatz-mamikoa. Azkena zen. Gainontzeko minak pijamarekin tapatu ditut.

Sukaldeko barra gainera hurbildu naiz. Erosketa zerrendara gehitu ditut *tiritak*, ahaztu aurretik. Begiak zaborrontzira joan zaizkit, usain hartu dutenak eurak direla dirudi. Zaborrontziaren tapa zabaldu, eta letxuga-hosto zimurtuen eta arrautza-oskol apurtuen artetik nire parfumearen usaina atera da berriz. Ez, ez dago nire bizitzaren metafora hoberik.

Zaborra jaistea pentsatu dut, baina ez dut Begoñaren ataritik berriz pasatu nahi. Kafesnea berotu, eta sofán eseri naiz irakurtzera. Leihoetako zirikituetatik sartzen den hego-haize epelak ere ez nau bakean utzi nahi, eta etengabe laztan egiten dit lepoan, ukitu egiten nau, laztandu, eta ez zait gustatzen, etengabe mundura itzularazten nau. Leihoak ixtera altxatu behar izan dut, eta indarrez bultzatu ditut, tartean hego-haizea harrapatzeko eta erailtzeko gogoz.

Erdiraino jaitsi ditut xaflazko gortinak ere, mundua ez ikusita, munduak ikusiko ez nauela sinetsita. Berriz eseri naiz liburua eskuetan. Kafesneari emandako trago bakoitzean nire eskuetara itsatsitako *Burberry*a usaindu behar izan dut. Bi egun igaro dira lurrin-flaskoaren zatiak bildu eta garbitu nituenetik, baina 30 mililitro lurrin lurrin asko da. Eta gorputz txarra utzi dit perfume usaineko kafesne beroak. Lurrinez aldatu beharko dudala uste dut.

Bitartean eguzkiak gero eta gehiago luzatzen ditu besoak gortinetako xaflen zirikituetatik, bakean uzteko nire nahiari sorgor eginez. Itzalak marra paraleloak marraztu ditu egurrezko zoruaren gainean lehenik, eta nire oinetan gero. Sofa gainera jaso ditut hankak. Eguzkiaren laztanik ere ez dut nahi.

Ohe azpian munstroa ezkutatuta duen haurraren urduritasuna pijama barrura sartu zait, eta ezin izan dut irakurtzen jarraitu. Eguzkia, amore ematetik oso urrun, gero eta gehiago makurtu da gortinen zirikituetatik pasatzeko, burugogor, temati. Marra berriak erditu ditu zoruan, eta sofa berdean gora hasi da pixkanaka. Berriz nigana iristea lortu duen arte. Nire oinen izotza laztandu du, marra bakarrak lehenengo, eta beste batek gero.

Nire hankak besarkatu ditut ezin estuago, saihetsetako mina irentsi behar banu bezala, armiarma-sarea dastatu. Begiak itxi ditut, ez dut ikusi nahi. Baina ikusi gabe sentitzen dut eguzkiak gora eta gora jarraitzen duela, ukitu egiten nauela; armiarma baten gisan sentitzen dut oinez, astiro, mehatxu isilean. Eta ni ezin naiz txikiagoa egin, ni ezin naiz mundutik gehiago desagertu.